

Heroi bat misioan!

Maeve
Friel

Marrazkiak

Joelle
Dreidemy

desclée

Haritzondo uhartea

Merkatu plaza

Marmelada-fabrika

Ereinoz kafetegia

Aldebakar kalea

Kizkurto ala hil!
Zurberritze Lantegia

Sardinien kalezuloa

Jolastoki zaharra

Duke kalea


Errepide nagusia

Trenbide kalea

Trenbide geltokia

Behi bidea

Nire



Pikutako Baztergaldu



etxea

annibaldarren
txaldea

Sagardi
zaharra

Opor-etxolak

Pikutako
Baztergaldura
etorritako
bisitariak




Areane Padura eta Kalez kale taldea



Adeigoitia jauna

Malonetarrak



H-OR seikotea



Lauren eta Snoopy



Rosie eta ni



Katy eta Mitzi



Sammy eta Zog



Hirugihar semea
eta Ar-oltz



Danny eta Fugsy





1. atala

—Pauma hori... jo eta garbitu egingo nuke —esan zuen amak, eta etzaulki baten gainera erortzen utzi zuen bere burua, *Pregoilaria* egunkariaren ale batekin haize eginez. Tiger Lilyk sagarrondoa inguratu zuen liburuz zamaturiko eskorgari bultza eginez, eta amari begiratu zion.


—Ezin duzu paumarik hil, ama; izugarri ederrak dira. Gainera, apustu egingo nuke zapore nazkagarria dutela. Ketchup mordo bat beharko zenuke.

—Ez izan tuntuna, Lily. Ez dut pauma JAN nahi. Esan dut *akabatu* egingo nukeela. Sagar guztiak zulatzen ari da, eta etengabeko «uaaarg» horiek zoratu egingo naute.



Tigerrek eta amak hizpide zuten pauma baratzeko sagarrondo baten kontra talka egina zen goiz hartan, eta, geroztik, txilioka ari zen isildu gabe. Hannibaldarren Arraza Bakanen Etxaldekoa zen, haien aldamenean. *Etengabe* joaten zitzaizkien ihesi. Herriko kaleetan barrena ibiltzen ziren, korrika txikian, eta trafikoa geldiarazten zuten, beren haizemaile-antzeko isats zoragarrien erakustaldia

egiteko. Harro-harro ibiltzen ziren trenbidearen erditik, ezeren kezkarik ez duenaren moduan, eta loreak jaten aritzen ziren Xingar Baconen lorontzi zintzilikarioetatik.




—Beroak akabatzen dagoelako egiten du txilio –esan zuen Tiger Lilyk, eta eskorga etxe ondoko estalpean utzi zuen—. Ni neu ere egosten ari naiz, eta ez daukat luma horiek guztiak nirekin arrastaka eraman beharrik...



Abuztuaren lehena zen, Garbiketa Operazio Eguna: Tiger Lilyk eta haren amak, Vickyk, etxean zituzten liburu haiekin guztiekin behingoz zerbait egiteko izendatua zuten eguna.

Izan ere, apalategietatik gainezka egin, eta eskailera-mailatan gora zihoazen liburuak. Leiho-hegietan jagole zeuden, tente jarrita, eta elkarren ondoan formazio estuan, armairu gainetan.



Berentzat hartuak zituzten sukaldeko aulkien eserlekuak; sakabanatuta zeuden mahai gainetan, eta gero eta ugariagoak ziren errezen atzeetan. Bazter guztietan zeuden.




Arazoa zen Tiger Lilyk eta amak ez zutela sekula ikusi libururik, hartu eta etxera eramateko gogoaz piztu ez zienik. Amak, liburutegi ibiltaria gidatzen baitzuen, etengabe erosten zituen liburutegian bazter utzitako liburu zaharrak; Tiger Lilyk, berriz, bigarren eskuko liburuak erosten zituen amarekin hirira joaten zen bakoitzean, ongintzako dendan. Hainbestearino zeukan burua istorioz mukuratu beteta, ezen, munduan beste ezer baino gehiago, heroi bihurtu nahi baitzuen, eta mundua korritu bereberek izango ziren abentura zirraragarriak biziz, irakurtzen zituen liburuetako pertsonaiek bezalaxe.

Oztopo bakar bat zegoen Tigerren bidean: Pikutako Baztergaldun bizi zen, sekula santan ezertxo ere gertatzen ez zen leku batean. Ez zegoen pirata etsairik uhartean, ezta eskailera sekreturik ere basoan, lurpeko herrialde ezkutu baterako sarbidea ematen zuenik; eta, berak zekienez behintzat, ez zen jende ñimiñorik bizi beraren etxean, zoruko oholen azpian... nahiz, egia esan, ez legokeen gaizki begiratu bat botatzea...



Eskorga husten ari zela, paumaren begiratu
ernearen pean, erabaki bat hartu zuen: egun
batean, luze gabe, baten bat heroi baten
beharrean gertatuko zen, eta hantxe izango
zen bera, armak hartzeko prest, okerren bat
zuzentzeko edo
misterioren bat
argitzeko.



—Uaaarg! —egin zuen txilio paumak berriz,
belardirantz harro-harro zihola. Isats-luma urdin
metaliko distiratsuak astindu, eta altxatzen hasi
zen, arku ikusgarri bat eratzeraino.

Lily eta ama jiratu, eta hari begira jarri ziren.
Baina beste norbaitek ere ikusia zuen.



Rosie, Tigerren galgo hiru hankaduna, paumari begira-begira zegoen. Muturra inarrosi zitzaion. Lorategiko bankuaren azpitik herrestan atera, besoen gainean altxatuz eserita jarri, eta, astiro, gorputza aurreratu zuen, lasterka abiatzeko prest.

—Azkar, Lily! Heldu lepokotik! —egin zuen oihu amak.

Beranduegi, ordea. Zitzu batean abiatu zen Rosie.

Paumak atzerantz begiratu zuen; karranka bat bota, eta korrika trakets batean abiatu zen, isatsa atzetik arrastaka zuela.

—Azkar, Lily! Egin zerbait! —garrasi egin zuen amak—. Ez utzi txakurrari pauma hiltzen. Dirutza bat balioko du seguru asko!





—ROSIE! –garrasi egin zuen Tigerrek–. GELDI!
ESERI! EGON! ETORRI HONA!

Rosiek ez zion jaramonik txikiena ere egin.

Jauzi aztoratuak eginez zeharkatu zuen belardia, begiak paumarengan iltzatuta.

Lily abaila batean hasi zen lasterka.

—Harrapatu, Tiger! –oihu egin zuen amak.

Tiger Lilyk irribarre egin zuen, amak ez baitzion ia inoiz *Tiger* esaten.

Jauzi eginez bere burua bota, eta plakaje ikusgarri bat egin zion Rosieri; hain zuzen txakurra atzeko hanken gainean altxatu eta hegaztiaren gainera jauzi egitera zihoan instant berean.

Brast erori ziren biak, paumaren isats gainera.

Hegaztiak karranka hiratu bat bota zuen; astindu batez bere burua askatu, eta,





hegaldi labur eta trauskil bat eginez, lorategiko murrua igaro zuen. Rosie eserita utzi zuen begi esmeralda-berdez apainduriko hiru luma ederren gainean.

Amak hasperen luze eta sakon bat egin zuen.

—Zer esan zenuen bart Txakur Eskola berri bati buruz? —galdetu zuen.

—O, amatxo, joan naiteke eskola horretara, mesedez? Hannibaldarren

etxaldean da. Gainera, badago umeentzako ikastaro berezi bat. Liburuan daukat esku-orria.

Izan ere, Tiger Lily ez zen inora joaten bere liburu berezia aldean hartu gabe; hantxe idazten zituen bere egunerokoa eta bere liburu-kronikak, eta marrazkiak egin eta bestelako gauza baliagarriak gordetzen zituen barruan.

—Ikus dezagun —esan zuen amak.

